

Lectura sobre los casos represivos de las últimas semanas

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA. ::

04/01/2019

Gasteizko Gaztetxea, huelga en la empresa Huerta de Peralta y represión policial en Biarritz

Azken asteetako gertaera errepresiboen inguruko irakurketa

Gasteizko Gaztetxea, Huerta de Peralta enpresako greba eta Biarritzeko errepresio poliziala

Euskal Herrian poliziaren partetik ematen ari diren errepresio kasuak hainbat izan dira azken asteetan, eta horien aurrean hartzen duen jarrera ezagutarazi nahi du Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak. Honako kasuei egingo diegu aipua: **Gasteizko Gaztetxea, Huerta de Peralta enpresako greba eta Biarritzeko errepresio poliziala.**

Errepresio kasu larriak gauzatzen ari dira azken asteetan Euskal Herrian zehar topa ditzakegun indar polizial ezberdinak, administrazio ezberdinek kudeatuta, baina amankomunean izanda Euskal Langile Herria zigortzeko tresna izatea.

Biarritz. Abenduaren 18an, Yves Le Drian Frantziako Atzerriko Gaietarako Ministroa Biarritzera etorri zen aurtengo udan Lapurdiko udalerrri honetan burutu nahi duten G-7 deritzanaren goi-bilera prestatzeko asmoarekin.

Munduan zehar milioika pertsona erailtzen dituen kapitalismo basatiaren bultzatzaile nagusiak etorriko dira Euskal Herriko zonalderik turistifikatuenera. Lapurdi aberatsen atsedean leku bihurtzen duten bitartean, bertako gazteak hemendik alde egitera behartuta ikusten dute euren burua haien jaioterrian ikasi, lan eta bizitzeko aukera lapurtu dietelako. Horretaz gain, ezin dugu ahaztu Frantziako Estatuak okupatuta mantentzen dituen euskal herrialdeetako bat dela Lapurdi, eta ekimen honekin Euskal Herriko eremu horren frantziartasuna aldarrikatzea ere duela xede.

Abenduaren 18an Biarritz polizialki okupatu zuen Frantziako Estatuak. Ehunka polizia izan ziren biarritzarrei kalea lapurtzen, "Okupazio Inperialistaren Ministroari" lekua uzteko. Polizia Frantsesaren CRSak G-7aren aurka manifestatu ziren pertsonen aurka oldartu ziren eta hainbat zauritu eragin zituzten, tartean "flash-ball" baten inpaktua jaso zuen eta aurpegian oso zauri larriak pairatu zituen 18 urteko gazte bat.

Bestetik, Euskal Herritik kanpo (Bordelen), Baionako beste gazte batek eskua galdu zuen Poliziak protesta sozialetan parte hartzen ari ziren manifestarien aurka jaurtitako granada baten eztandaen ondorioz.

Bi kasu hauetan, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak elkartasuna adierazi nahi die bi gazteei eta poliziaren jardura salatu. Era berean, argi utzi nahi dugu

eskubide sozialak aldarrikatzen duen edozein mobilizazioarekin topaketarako esparruak aurkituko ditugun arren, tinko kritikatuko dugula ere Euskal Herriaren lurraldetasuna errespetatzen ez duen edota gure herriaren asimilazio nazionala bultzatzen duen jarrera oro, hala nola eduki iraultzaile oro aspaldi galdu duen “La Marseillaise” bezalako ereserki chauvinistak Euskal Herrian abestea. Herri okupatua gara eta horrelako irainik ez dugu ontzat hartuko.

Huerta de Peralta. Borroka eredugarria burutzen ari dira Erriberako Azkoien herrian kokatuta dagoen nekazal-enpresa honetako langileak. Azken urtean borrokaren bitartez garaipenak lortzea posible dela erakutsi dute. Gehienak Euskal Herritik kanpo lanera etorritakoak dira eta, arrazoi horregatik, kalteberatasun egoera handiagoan daude. Egoera hau, beldurtzetik urrun, borrokarako arrazoi bihurtu dute.

Greba hasi zuten abenduaren 26an, enpresak kaleratutako lau langileri haien lanpostuak itzultzearen alde. Ohikoa den bezala, Polizia Foralak, Nafarroako zipaioek alegia, gogorki eraso egin die langileei protestetan zehar, hainbat zauritu eragiten. Langileen aurkako eraso hauek erakutsi dute Espainiar Estatu zapaltzailearen egituretatik, Nafarroako legebiltzarra kasu, ez dela posible hauen eragina gainetik kentzea, bai ordea haien joko arauen normalizazio politikoa egonkortzea.

Gure babes osoa langile hauek burutzen ari diren borrokari.

Gasteizko Gaztetxea. Udaltzaingoa Gaztetxean sartu zen Gabon Zaharreko jaiari musikaren bolumena altuegi zutela aitzakia hartuta, lehenago abisurik eman gabe. Gazte Asanbladak salatu bezala, horrelako arrazoi bategatik ez da Gasteizko inongo beste lokaletan antzeko interbentziorik ezagutu. Gertatutakoa jasotzen duten grabazio ezberdinek frogatzen dute polizien helburua Gazte Asanblada eta gaztetxearen jardura zigortzea zela.

Polizien jokaeraren ondorioz, bost gazte atxilotu zituzten, eta haietako bat espetxeratua izan da lehenagotik ere bere aurkako kausa bat irekita zegoelako. Ondorio larria Gasteizko udaltzainen jardura errepresiboak izan duena. Beti bezala, poliziek haien aurkako erasoak salatu dituzte, baina irudiek eta gaztetxean sartzeko emandako argudioek argiki erakusten dute gazteria mobilizatuaren aurkako beste muntaia polizial baten aurrean gaudela.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak babesa erakutsi nahi die atxilotutako gazteei, Gasteizko Gaztetxeari eta oro har Euskal Herriko Okupazio Mugimendu osoari ere. Zentzu horretan gogorarazi nahi dugu Donostiako Kijera Gaztetxeak salatu duela desalajo arriskuan dagoela. Beraiei ere gure elkartasun osoa.

Ikusi dugunez, gure herria zatituta mantentzen dutenek era guztietako eta izen ezberdineko poliziak ezartzen dizkigute Euskal Herrian, baina guztiek interes berberei erantzuten diete. Indarraren bitartez eraso egiten diote langileriari eta saiatzeko dira gure herriaren asimilazio kulturala eta sentimentala lortzen. Honen aurrean borrokarako deia egiten dugu beste behin ere.

Euskal Herria, 2019ko urtarrilaren 4a.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.

Lectura sobre los casos represivos de las últimas semanas

Son varios los casos represivos que se están registrando en Euskal Herria durante las últimas semanas, y el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere dar a conocer su postura ante estos. Haremos mención a los siguientes casos: **Gasteizko Gaztetxea, huelga en la empresa Huerta de Peralta y represión policial en Biarritz.**

Las distintas fuerzas policiales que podemos encontrar a lo largo de Euskal Herria están protagonizando graves casos represivos, gestionadas por distintas administraciones pero teniendo en común el hecho de ser herramientas para castigar al Pueblo Trabajador Vasco.

Biarritz. El 18 de diciembre vino a Biarritz Yves Le Drian, Ministro para Asuntos Extranjeros de Francia, con la intención de preparar la cumbre que el denominado G-7 quiere llevar a cabo en esta localidad de Lapurdi en el verano de este año.

Los principales impulsores del capitalismo salvaje que asesina a millones de personas por todo el mundo vendrán a la zona más turistificada de Euskal Herria. Mientras pretenden convertir Lapurdi en zona de descanso para los ricos, sus jóvenes se ven en la obligación de tener que marcharse porque les han robado la posibilidad de estudiar, trabajar y vivir en su lugar de nacimiento. Además de esto, no podemos olvidar que Lapurdi es una de las provincias vascas que mantiene ocupadas el Estado Francés, y que con esta iniciativa también quiere reivindicar el carácter francés de esa zona de Euskal Herria.

El 18 de diciembre el Estado francés ocupó policialmente Biarritz. Cientos de policías robando la calle a la gente de Biarritz para dejar sitio al “Ministro de Ocupación Imperialista”. Los CRS de la Policía Francesa cargaron contra lxs manifestantes e hirieron a varias personas, entre ellas a una joven de 18 años que sufrió lesiones muy graves en la cara como consecuencia del impacto de una “flash-ball”.

Por otro lado, fuera de Euskal Herria (en Burdeos), otro joven de Baiona perdió la mano como consecuencia de la explosión de una granada lanzada por la Policía contra lxs manifestantes que participaban en las protestas sociales.

En ambos casos, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere denunciar la actividad policial y mostrar su solidaridad a lxs dos jóvenes. Asimismo, queremos dejar claro que aunque encontraremos espacios de encuentro con cualquier movilización que reivindique derechos sociales, también criticaremos con firmeza toda actitud que no respete la territorialidad de Euskal Herria y/o que impulse la asimilación nacional de nuestro pueblo, como cantar himnos chauvinistas como “La Marseillaise”, que hace mucho tiempo que perdió su contenido revolucionario. Somos un pueblo ocupado y no daremos por buenas ofensas de ese tipo.

Huerta de Peralta. Lxs trabajadorxs de esta empresa agrícola situada en Azkoien, en la Ribera, están llevando a cabo una lucha ejemplar. Durante el último año han demostrado que es posible conseguir victorias mediante la lucha. La mayoría son venidxs a trabajar de fuera de Euskal Herria, lo que les sitúa en una mayor situación de vulnerabilidad. Lejos de

acobardarse, han convertido esta situación en un motivo para luchar.

El 26 de diciembre iniciaron una huelga para que cuatro trabajadores despedidos por la empresa fueran readmitidos. Como es habitual, los cipayos navarros que son la Policía Foral, han atacado duramente a lxs trabajadorxs durante las protestas, causando varios heridos. Estos ataques contra lxs trabajadorxs han demostrado que desde las estructuras del Estado Español que nos oprime, como es el caso del Parlamento Navarro, no es posible zafarse de la influencia de estas, y sí lo es, en cambio, estabilizar la normalización de sus reglas de juego.

Nuestro apoyo total a la lucha de estxs trabajadorxs.

Gasteizko Gaztetxea. La Policía Municipal entró sin previo aviso en el gaztetxe durante la fiesta de Nochevieja, poniendo como excusa que el volumen estaba demasiado alto. Como ha denunciado la Gazte Asanblada, no se conoce semejante intervención por tal motivo en ningún otro local de Gasteiz. Las distintas grabaciones que recogen lo ocurrido demuestran que la intención de la Policía era castigar la actividad política de la Gazte Asanblada y del gaztetxe.

Como consecuencia de la forma de actuar de los policías, cinco jóvenes fueron detenidxs y una de ellas encarcelada porque tenía abierta una causa anterior. Grave consecuencia la acarreada por la actividad represiva de los municipales. Como siempre, los policías han denunciado haber sido atacados, pero las imágenes y las excusas utilizadas para entrar en el gaztetxe demuestran claramente que nos encontramos ante un nuevo montaje policial.

El Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere mostrar su apoyo a lxs detenidxs, al Gaztetxe de Gasteiz y, en general, a todo el Movimiento de Okupación de Euskal Herria. En ese sentido, queremos recordar que Kijera Gaztetxea de Donostia ha denunciado que se encuentra en riesgo de desalojo. También a ellxs toda nuestra solidaridad.

Como hemos visto, quienes mantienen dividido nuestro pueblo nos imponen policías de todo tipo y con diferentes nombres, pero todas ellas responden a los mismos intereses. Mediante la fuerza atacan a la clase trabajadora e intentan conseguir la asimilación cultural y sentimental de nuestro pueblo. Ante ello volvemos a hacer un llamamiento a la lucha.

En Euskal Herria, a 4 de enero de 2019.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

<https://www.amnistiaaskatasuna.com/eu/artikuluaz/azken-asteetako-gertaera-errepresiboen-inguruko-irakurketa>

<https://eh.lahaine.org/lectura-sobre-los-casos-represivos>